

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Audituz Akularreko udal lurrei eta horien etorkizuneko erabilerrari buruz. Mozioa Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Audituz Akular aldean 3062 etxebizitza eraikitzeke asmoa baztertu ondoren, Donostiako Udala da lur horietako askoren jabea, 11 milioi euro gastatu ondoren. Bi hamarkada baino gehiago igaro dira 800.679 metro koadroko eremu horretarako aurreikusia zegoen bizitegi garapena zapuztu zenetik. Hori hirigintza aldetik Landarro eremuarekin batuz gero, 1.114.660 m² dira guztira. Hala, bada, halako inbertsioa egin ondoren, arrazoizkoa dirudi pentsatzea berriz aztertu beharko litzatekeela nola konpondu litezkeen auzoak hirigintza eta ekipamendu aldetik dituen gabeziak, eta nola eman dakioken eremu horri auzoaren eta hiri osoaren beharrak asetzeko moduko erabilera bat.

Gainera, eremu horretan bertan, Landarro inguruan, Ikea enpresa kokatzeko operazioa zapuztu zen: 70 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egitea zegoen aurreikusia, 300 lanpostu sortzea eta zerga egoitza Gipuzkoan izango zuen sozietate bat eratzea. Sozietate hori eremua dinamizatzeko elementu bat izan zitekeen, A-8 autobidearekin duen loturari esker.

Orduan, baztertu egin zen proiektu hori, Landarroko gune horretan bertan ikerketa, garapen eta berrikuntzako enpresa parke bat garatzeko asmoa zegoela argudiatuz.

2019ko otsailean, Udalak *Donostia Urban Lur* proiektua jarri zuen abian, nekazaritzaren sektorean ikaskuntza sustatzeko asmoz. Sei pertsona ekintzaileri 2,74 hektareako espazio bat eskaini zitzaion, Audituz Akularren (Altza) dauden 4000 eta 6000 metro koadro bitarteko sei lurzatitan banatuta.

Gobernuari interpelazio bat egin genion, lurrak erosten egindako inbertsio publiko handi hori nola bideratuko den, udal azalera zenbatekoa den eta inguruan eta hirian dinamizazio ekonomikorako gune berriak sustatu behar diren jakiteko. Hala, hau da Talde Popularrak egiten duen

1. Donostiako Udaltzakoak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari diseina dezala plan bat Auditz Akular inguruko lurzorua erosteko egin den 11 milioi euroren inbertsio publikoa amortizatzeko. Plan horrek kontuan hartuko du espazio horretan enpresa eta etxekidetzak ingurune berriak jartzea, eta, hala, bide emango du talentua eta kalitateko eta teknologiako enplegua erakartzeko eta Alzaren eta hiri osoaren garapen soziala sustatzeko.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 23a

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularra udal taldearen bozeramailea